

ANTONIO ZAVALA, S. I. *Bosquejo de historia del bersolarismo*.
(37). 1964.

Lenengo aldiz biltzen da bertsolaritzaren kondaira, liburu batean. Ondo eta berri ugarirekin lortutako alegia. Erderaz idatzia da. Baiña, ala ere arrera ona merezi du euskal kontuko gauzak erderaz iskribatuak gustatzen ez zaienen artean ere.

Bertsolaritzari buruzko berriak lenengo aldiz idatzi zuan Iztueta gandik asi, 1801, ta 1936-ra arteko berriak dakarzki bat-bateko bertsolaritzarenak. Eta Independentziako gerrate eta Fernando Amezketarra-gandik Txirrita-ra arte, karlisten denborako gerretatik "bertso-paperak" edo "Bertso-berriak" orrien garaitik zear bertsolaririk nagusien zeaztasunak emanaz Xenpelar, Bilintx, Iparragirre, Udarre-

gi, Pello Errota, Otaño ta abar. Iztueta, Gorosabel, Manterola, Etxegaray eta abarren iritzi eta jardunak bilduaz.

Lastima bertsolaritzak neurri, puntu, egikera eta orrelako gauzetan dituan legeen aipamen bat ez egitea. Orri gutxitan gauza asko eman zezazkean lege-muga oiek ezagutzen ez dituzteneri, eta liburuak asko irabaziko zuan.

Edozelan ere, gai onetzaz egoan utsunea aundia zan eta naikoa ondo bete du Aita Zavalak. Izan ere, orretara nekez arkituko zan bera baiño aukerakoagorik. Ainbeste urtean bertso biltzen ibiltzeari probetxu ederra atara dio kondaira au osotzeko. Bildutako bertsoak eza-gunak ditugu "Auspoa" liburutegian argitaratzen dijoan liburutetik, ta biziki estimatzen dugu bere lana.

Donostiako "Altos Estudios Vascos" (E.U.T.G.) deritzaion unibersitario etxean eman zituan lau itzaldi oifiarri arturik egindako liburua da eta aisa irakurtzen da. Aita Onaindiak argitaratu duan *Gure bertsolariak* (euskeraz au) enziklopedi erako liburuarekin batean, bertsolaritzari dagokiona oso ondo betetzera dator. Lege ta gaiñerako abururik —bertsogiñari buruz— jartzen ez duelako edo zer esan askotatik libratu da. Bertan agertzen diran iritziak mendeak zear bertsolaritzari buruz izan diranak adieraziak besterik ez dira, eta beretatik libre arkitzen da egillea.

Errez eta gustora irakurtzeko eran dago. Ta bertsolaritzaren kondairari ez-ezik euskal literaturaren kondairarentzat ere eskeintza ederra dakar, bestelako kondairarako dakarrenagandik aparte.

Bertsolaritzak, gaur, bere literatura berezi bat eukitzeaz gaiñera, euskerarentzat iñor uste zuan baiño ongarri geiago dakar. Eta, sasi-literatura zala uste zutenak ere txapela kendu bearrean daude gure bertsolarien aurrean, izkuntza zarra benetan maite badute beintzat. Erbeste ta erriko seme askori entzun izan diogu euskerak ez duela ezertarako balio eta obe dala baztertu. Ta, orain, bertsolaritza gaitik amaika erdeldunen agoetatik entzutera eldu naiz euskeraz jakin naiko lukeela bertsolarieri aitzearren.

Beraz, datoztela orrelako liburuak. Beti lagunduko digute euskeraren inguruko giroa obetzen, gaixo dagoan izkuntzaren arnasaren alde.

J. SAN MARTIN.

